

2013-04-30ko OHIZKO UDALBATZA

Iruran, bi mila eta hamahirugarren urteko apirilaren hogeita hamarrean, arratsaldeko 19:30ean, udaletxeko osoko bilkuren aretoan, batzar ohizkoa egin du Udalbatzak, Ainhoa Ugalde Gorostiaga alkatea buru duela.

-Azaldu diren BILDU udal-taldeko zinegotziak: Gorka Murua Macuso, Mikel Gotzon Iturbe Saizar , Noelia Lataburu Ortiz eta Josu Yurrita Loitegui.

-Azaldu ez diren BILDU udal-taldeko zinegotziak: Olaia Nieto Legarra, Ainara Mugica Iruretagoyena eta Tomás Etxeberria Sarasola.

-Azaldu ez diren EAJ/PNV udal-taldeko zinegotziak: Javier Izaguirre Gomez.

Miguel Antonio Arrizabalaga Brusin Udaleko idazkariak egin ditu idazkari lanak.

Alkateak irekitzat jo du saio publikoa; segituan, eta honen baimenarekin, idazkariak jakinarazi du bilera egitea badagoela, Toki Erregimeneko Oinarriak Arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak eta azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuak, Toki Erakundeen Antolakuntza, Funtzionamendu eta Eraentza (Erregimen) Juridikoaren Erregelamendua onartzen dituenak, agindutako gutxieneko partaide-kopurua bertaratu baita.

LEHENBIZIKO GAIA

UDALBATZAREN AZKEN AKTA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO (2013-03-26). 2013ko martxoaren 26ko ohiko saioaren aktaren zirriborroa aurkeztu da, eta aho batez onartu da.

BIGARREN GAIA

ALKATEAREN DEKRETUEN BERRI EMATEA.- Alkateak honako dekretuen berri eman dio Udalbatzari:

2013ko 45. zenbakitik 67. zenbakira bitartekoak.

HIRUGARREN GAIA

2013KO UDAL LANGILEEN EGUTEGIA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO.- Jakinarazi da 2013ko Irurako udaleko langileen egutegiaren

proposamena: “Udal honetako langileen 2013ko lan-egutegiaren proposamena, honako lan-arloetakoak:

- Bulego orokorra.
- Obra eta zerbitzuen brigada.
- Hirigintza.
- Garbitzaileak.
- Kultura
- Euskara zerbitzua
- Gizarte zerbitzuak.

Urteko lanaldiak 1.592 ordu izango ditu, dedikazio partziala duten langileentzat izan ezik. Azken hauei dagokien murrizketa partziala egingo zaie. Aipatutako ordu-kopurua baino txikiagoa azaltzen den egutegien kasuan, guztizko kopurura iritsi arteko gainerako orduak bilerekin, aparteko orduekin..... osatuko dira.

-Astean ordutegi normalizatua: 35 ordu, 8:00etatik 15:00etara

-Egutegia aurkeztu ez dutenek bulego orokorreko egutegia hartuko dute erreferentzia gisa.

-Bi zubi; abenduaren 24 eta 31.

-Oporrak: 24 lanegun, astelehenetik ostiralera.

-Norberaren lizentzia egunak.

-Antzinasun egunak.

-Jaiegun ofizialak, estatukoak, autonomikoak eta tokikoak: 14.”

Ogasun, Kontu eta Administrazio Batzorde Informatiboak, gaur egindako bileran, aldeko irizpena eman dio.

Hori ikusita, udalbatzak aho batez proposamena onartzea erabaki du.

Erabaki hau behin betikoa da administrazio bidean.

LAUGARREN GAIA

IRURAKO ZAHARREN ELKARTEAREN DIRU-LAGUNTZA ESKAERA.-
Irurako Jubilatuen Elkarteak urteko ekintzak aurrera eramateko diru-laguntza eskatu du.

Gizarte Zerbitzuetako Batzorde Informatiboak 2013ko apirilaren 19an egindako bileran aldeko irizpena eman dio.

Gastuarentzat badago nahikoa diru-izendapen aurrekontuko partida honetan: 1.0000.481.450.0000.2013.

Hori ikusita, Udalbatzak aho batez onartu du honakoa:

1) Diru-laguntza hauek onartzea:

a) 2012an burutako ekintzengatik 1.237,98 euro ematea.

b) 2013an burutzen ari diren eta burutuko dituzten ekintzetarako 2.262,02 euro ematea.

Orain 2.000 euro ordainduko zaie. 2014ko martxoaren bukaerarako zuritu beharko dute fakturen bidez, eta diru-laguntza kitatuko da.

2) Ordainketak egin aurretik, diru-laguntzak ematea arautzen duen Udal Ordenantzaren 5. artikuluan ezarrita datozen agiriak aurkeztu behar ditu.

Erabaki hau behin betikoa da administrazio bidean.

BOSGARREN GAIA

2012. EKITALDIKO IRURAKO UDAL AURREKONTUAREN LIKIDAZIOAREN BERRI EMATEA.- Alkatearen Dekretuaren berria eman da:

“Udal honen 2012ko aurrekontuaren likidazioari buruz kontu-hartzaileak osatu duen txostena ikusirik, eta likidazio horren dokumentuak aztertu ondoren, bertan jasotakoarekin bat natorrenez, abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauak, Gipuzkoako Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzkoak, 49.3 artikuluan emandako eskumenak erabiliz, honako hau

EBATZI DUT

Lehena.- Udal honen 2012(e)ko aurrekontuaren likidazioa onartzea. Hona hemen horren laburpena:

1.- Diruzaintzako izakin likidoak, 2012-12-31n:		744.834,71
2.- Kobratu gabeko saldoak, 2011-12-31n:		143.558,91
Aurrekontuko zordunak :	111.583,87	
Aurrekontuz kanpoko zordunak:	31.975,04	
- Aplikatu gabeko kobrantzak:	00,00	
3.- Ordaindu gabeko saldoak, 2011-12-31n:		635.678,60
Gastuen aurrekontuko hartzekodunak:	129.677,64	
Sarreraren aurrekontuko hartzekodunak:	0,00	
Aurrekontuz kanpoko hartzekodunak:	506.000,88	
- Aplikatu gabeko ordainketak:	0,08	
4.- Diruzaintzako gerakin gordina (1+2+3):		252.715,02

5.- Saldo kobragaitzak:	5.539,30
6.- Diruzaintzako gerakin likidoa (4-5):	247.175,72
7.- Finantzaketa lotua duten gastuetarako diruzaintzako gerakina:	0,00
8.- Gastu orokorretarako diruzaintzako gerakina (6-7):	247.175,72
9.- Aurtengo aurrekontuko eragiketen emaitza:	269.212,11
10.- Aurreko ekitaldietan likidatutako aurrekontuetako eragiketen emaitza:	-11.985,93
11.- Doiketak, diruzaintzako gerakinaren bidez finantzatutako obligazioengatik:	0,00
12.- Doiketak, finantzaketa lotua duten gastuen desbiderapenengatik:	0,00
13.- Aurrekontu emaitza (9+10+11+12):	257.226,18
14.- Txerta daitezkeen kreditu gerakinak:	136.599,13
15.- Txertatu ezin diren kreditu gerakinak:	0,00
16.- Kreditu gerakinak, guztira (14+15):	136.599,13

Bigarrena.- Gipuzkoako Foru Aldundiari likidazio espedientearen kopia bidaltzea, lehen aipatutako Foru Arauak 49.5 artikuluan jasotakoa betez.

Hirugarrena.- Udalbatzari dekretu honen berri ematea hurrengo bileran.”

Akordio hau behin betikoa da administrazio bidean.

SEIGARREN GAIA

IKASTAROEN TASEN ALDAKETEI BEHIN-BEHINEKO ONARPENA EMATEA, HALA BADAGOKIO.- Ez da aurkeztu proposamenik eta gai hau bertan behera utzi da.

ZAZPIGARREN GAIA

ASTE KULTURALEKO EGITARAUA ETA AURREKONTUA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO.- Irurako Udalak osatu du maiatzeko asteburu guztiak kultura-ekitaldiz beteko dituen programa, eta “Iruran maiatzean kultura 2013” deitzea erabaki du. Ekintzen egitarau hau maiatzaren 7tik 29ra bitartean burutuko da, eta era askotako kultur ikuskizun eta ekitaldiak egongo dira.

Gastuarentzat badago nahikoa diru-izendapen aurrekontuko partida honetan: 1.0000.226.450.0000.2013.

Kultura Batzorde Informatiboak 2013ko apirilaren 25ean egindako bileran bere aldeko irizpena eman dio.

Hori ikusita, Udalbatzak aho batez onartu du proposamena.

Erabaki hau behin betikoa da administrazio bidean.

ZORTZIGARREN GAIA

OSASUN ARRETA MOZIOA.- Honako mozioaren berri eman da:

“Irurako udalak behin eta berriz adierazi duen moduan, Tolosaldean eskaintzen den osasun arreta publikoaren alde dago. Zerbitzu hau, gestio publikoaz eskaini behar dela sinesten du.

Gestio publikoa duen zerbitzu publikoak ziurtatzen baitu arreta hau unibertsala izatea eta erdigunean pertsonen arreta eta osasuna jartzea, eta ez irabazi ekonomikoak.

Horrez gain, eskualdeko osasun arretak okertzeraz egin du 2011ko azaroan Inviza eta Osasun Sailak sinaturiko hitzarmenetik. Itzarote zerrendak luzatu dira, mediku, erizain zein pertsonal kopuruak jaitzi dira... eta herritarren aldetik udalok jasotzen dugun iritzia da zerbitzuak atzerakada bat izan duela.

Hori dena kontuan hartuta, Irurako udalak ondorengo eskatzen du:

-Euskal Herriko beste eskualdeek duten osasun zerbitzu bera eskatzen dugu Tolosalderako.

-Eskualdeko Osasun Zerbitzua 2011ko azaro aurretiko egoerara itzultzea. Hau da, eskualdeko anbulatorioak izatea, mediku espezialistak dituzten zentroak.

- Eskualdeko erreferentziazko ospitaleak Donostia ospitalea eta Asuncion izatea.

-Anbulatorioak izan beharreko pertsonalaz hornitzea, eskualdeko osasun arreta egokia bermatua izan dadin.

-Eskualdeko ospitale publiko baten beharra aldarrikatzen dugu eta, lehen fasean osasun arreta 2011ko azaro aurreko egoerara itzultzea eskatzen dugun bezala, ondoren, ospitale publiko bat eskualdean izateko pausoak ematen joatea eta horretarako lan mahai bat eratzea eskatzen dugu.

-Mozio honen berri, osasun sailari ematea.”

Hori ikusita, Udalbatzak mozioa onartzea erabaki du aho batez.

Erabaki hau behin betikoa da administrazio bidean.

BEDERATZIGARREN GAIA

HONDAKINEN KUDEAKETAREN INGURUKO KONPROMISO ETIKOA ONARTZEKO MOZIOA.-Honako mozioaren berri eman da:

“Eragindako kalteen aitortza egin eta **KONPROMISO ETIKOA** onartzeko mozioa. “Aspaldian ez bezala, Irurako herritarrak herrian daukagun arazo larri batez mintzo gara. Arazoa ezkutalekutik atera eta mahai gainean jartzea lortu dugu guztion artean. Askotan eztabaida arduratsu eta eraikitzaile batek izan behar duen ezaugarrietatik aldendu arren, herritarrak arazoez aritzea oso positibotzat daukagu. Jendarte demokratiko baten funtsezko ezaugarria da hori. Irurako herritarrok urtean milaka tona (mankomunitatetik edota udaletik lortu) hondakin sortzen ditugu. Hondakin horietatik gehienak nahastu eta zabor bihurtzen ditugu, inork etxetik gertu nahi ez dugun zaborra sortuz. Herrian nahi ez dugun zabor hori beste herri batzuetara bidaltzen dugu eta beste herritar batzuk pairatzen dituzte guk sortutako zaborraren ondorioak.

Iruratarrok errealitate horren jakitun izan behar dugu, eta guk eragindako kalteak pairatzen dituztenekiko begirune osoz jokatzeko dagokigu. Iruratarrok ez dugu udalerrri arteko harreman kolonialik nahi. Ez dugu nahi iruratarrok geurekoitzat har gaitzaten. Iruratarrok gizalegez jokatu nahi dugu eta arazoei arduraz ekin. Arazoak konpontzearen alde gaude eta ez arazoa beste herri bati pairaraztearen alde. Arazoa zaborra da, eta konponbidea, ahalik eta hondakin gutxien sortzea eta sortutakoak ez nahastea. Iruratarrok zor bat daukagu guk sortu baina nahi ez dugun zaborra jasotzen duten herrietako biztanleekin. Ahalik eta kalterik txikiena sortzea da zor horri erantzuteko era bakarra. Hori da, hain zuzen ere, gure **KONPROMISO ETIKOA**

Hori guztia kontuan hartuz, Udalbatza honek ondorengoa erabaki du:

- Udalak Iruratarrok zaborra jasotzen duten herrietako biztanleei ahalik eta kalterik txikiena eragiteko **KONPROMISO ETIKOA** bere egiten du, eta hori bete ahal izateko ondorengo neurriak hartuko ditu:

- o Ahalik eta hondakin gutxien sortzeko burutu ditzakeen ekintzak aztertuko ditu.

- o Sortutako hondakinak nahasi gabe biltzeko emaitza hoberenak lortzen dituzten bilketa sistemak ezarriko ditu.

- o Herritarren parte hartzea bultzatuko du, herritarrak ondo informatuta egon daitezen, herritarrek aipatutako konpromisoak betetzea bermatuko duten proposamenak egin ditzaten, eta konpromiso etiko horiek betetzen dituzten proposamenen artean erabaki dezaten.

Udalak hartutako erabaki honen berri emango die herritar guztiei.”

Hori ikusita, Udalbatzak mozioa onartzea erabaki du aho batez.

Erabaki hau behin betikoa da administrazio bidean.

HAMARGARREN GAIA

GALDE-ERREGUAK.- Ez da galde-erregurik izan.

Aztertzeko beste gairik ez dagoenez, alkateak 20:00etan eman du amaitutzat bilera. Bertan esandako guztia aktan jaso dut, eta dena EGIAZTATZEN dut idazkari gisa.

ALKATEA

IDAZKARIA